

Oier Araolaza

DANTZARIA

Oilo bustia ala hartza

Dantzan puntu com, dantzaannnn, ennez bukatuta”. Zenbat aldiz errepikatu behar izan dugun zuzenketa hori azken hamar urteotan. Izena jartzerakoan pentsatu genuen indar gehiago zuela ‘n’z bukatutako “dantzan.com” horrek, eta gainera, beste erremediorik ere ez genuen, ‘n’ gabeko “dantza.com” zainzuriak, piperrak eta alkatxofak saltzen dituen Castejongo kontserberak hartua baitzuen ordurako.

Hamar urte dira ARGIAtik gonbidapena jaso nuela dantzan.com ekimenaren berri emanez artikulua bat idazteko. *The Chicken dance*, alegia, *Oilaskoaren dantza* izan zen artikulua haren izenburua. *Maria Jesús y su acordeón* eta bere *pajaritoak* Benidormen konfinatzea lortu genuenean, Ameriketako euskaldunen ezteietan jarri ziren modan, eta gainera, euskal jatorriko dantza zelako ustea zabaldu zen. Lisa Corcosteguiak esplikatu zuen *Oilaskoaren dantza* Thomas Werner suitzarrak sortu zuela 70eko hamarkadan, eta harrezkero mundu osora zabaldua zela *The Duck Dance* edo *La Danse des Canards* moduko izenekin. *Dantzaldizkaria* webgunean eman zituen azalpenok ingelesez. Hori ikusita pentsatu genuen ingelesez ez dakitenentzat egin behar genuela antzeko zer-bait. Horrela sortu zen dantzan.com, eta horrela hasi nintzen ARGIArako artikulua hauek idazten.



DANI BLANCO



Hamargarren urteurrena

ospatzeko unean hileta

kanpaiak jo ditugu.

Diru-laguntzen jaitsierak

eta beste diru-sarrerak

murritzuta dantzan.com

itxi beharra izan dugu



“Euskal dantzarien komunitatearen informazio trukea bideratzeko sortu da dantzan.com, euskal dantzari eta dantzazaleen gunea” idatzi nuen oilaskoarenak esplikatu eta gero. Dantzari batzuen gogoia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza eta CodeSyntax enpresaren gidaritzatza teknologikoarekin abiatu ginen. Bidean zientoka dantzari eta dantzazale, elkarte, talde eta norbanako batu zaizkigu, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso dugu, eta dantza arnasten duen komunitate erreala trinkotu da gune birtualaren bueltan.

Hamargarren urteurrena ospatzeko unean hileta kanpaiak jo ditugu. Diru-laguntzen jaitsierak eta beste diru-sarrerak murritzuta dantzan.com itxi beharra izan dugu. Oilaskoaren dantzaz gain, hartzaren hibernazioaz aritu gara dantzan.com-en. Jakin dugu neguan hartza leizean ezkutatu eta lozorroan izaten dela, kieto, hilda bezala. Kandelaria ostean, inauterien usainera iratzarri eta indarberrituta itzultzen da. Horixe amesten dugu guk ere. Hartzaren neguko loaldia izatea nahi genuke, indarrak batu eta

udaberriko esnatzeko. Baina, nola jakin lotara joaterakoan negu luzearen ostean iratzarriko ote garen? Hartzaren dantzarekin amets egiten dugu; ea ez garen oilo bustiarenarekin geratzen. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



genuen eskursio bakanen garraio, maisuaren agindu oihulariak lege, gure kantuak irrati, amaren zakua bideko. Beste garaiak ziren. Oraingoetan, gu gara garrasi batean autobuska bide egiten dugunak, Marlaskaren bat lege, Aresen bat irrati, zientoka amen larriak zaku. Guretzat propio erabaki aginduek ez gaituzte geldiarazten, isilik behar bagaituzte ere. Eta beste behin frogatu diegu ez gaituztela geldiaraziko, gaizkile deitzen dieten euskal preso politiko bakoitzeko ehun eta berrogeita hamar bat bidaia-ri gaudela, Euskal Herriko txangozaleak autobusik

Autobusa

gabe uzteko gauza garelara. Eskursioaren antolatzaileek erabakitako ibilbidea ez zen aski izan bertaratutako guztiak pausoan biltzeko, Etxerat-ekoak pasatzen ikusteko espaloietan tinko-tinko geundenon arnasestua genuela kantu. Halere, maisu agintariek berean dihardute, zintzotasuna galdetzen duten erregeak bailiran, tabakoaren hilgarria predikatzen duen mediku erretzailearen antzera. Preso bakoitzaren inguruan babes zabal zehatza gauzatzeko garaia dugu hau, auzo, herri, hiri, bailara autobus. Nazio osoa autobuska antolatua. Txoferren zain geratzen gara. ■

